



## INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

## BIDAIAK KUDEATZEKO ZERBITZUA

Argitalpen-data: 2014

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.


Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

### EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.





## GURE ERABAKIA:

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUEN BIDAIAK KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA

Batzuetan, bidaiak kudeatzeko zerbitzuak kontratatu behar izango ditugu, batez ere lanarrazoiengatik (biltzarrak, jardunaldiak edo edozein eratako bilerak) joan-etorriak antolatu behar badira.

Kontratazio eta erosketa berdearen bidez, eragin positiboa izan dezakegu zerbitzu horretan eta, horrenbestez, zerbitzuari dagozkion zeregin eta jardunetan, ingurumen-irizpideak sartuta. Nola? Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko *ekite-jarraibide*, *ingurumen-irizpide* eta funtsezko beste datu batzuk. Baliagarriak izan daitezke zerbitzu-mota hori kontratatzeko<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Fitxa honetan proposatutako irizpideak eta gomendioak lan-arrazoiengatik izaten diren lekualdaketak kudeatzera bideratu dira, batez ere, (hitzaldiak, azokak, jardunaldiak, bilerak...).

Dena den, ohiko leku-aldaketetarako garraio-zerbitzurako (enpresa-autobusetarako, esate baterako) edo bidaiak antolatuak kudeatzeko ere baliagarri izan daitezke.

**EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA**



## ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Ingurumen-irizpideak dituen bidaiak kudeatzeko zerbitzuak inpaktu negatibo nagusienak ahalik eta gehiena gutxitzen lagun diezaguke. Horretarako, hona hemen ideia aipagarri batzuk:

### Zenbait kontzeptu nagusi

#### Bidaien kudeaketako zer alderdik izan ditzakete ingurumen-inpaktu negatiboak?

1. Bidaiengatik: erregai-kontsumoak eta berotegi-efektuko gasen eta errekontzako beste gas kutsatzaile batzuen isurpenek.
2. Ostatu-hartzeagatik: ur-kontsumoak (gelak garbitzekoak eta arropa-garbitegian kontsumitutakoak), energia-kontsumoak (argiztatzeko, girotzeko eta ur berorako kontsumitutakoak) eta hondakin-sorkuntzak.
3. Bidaia-zerbitzua kudeatzeagatik kontsumoak eta inpaktuak: inprimaketak, paperak, hondakin-sorrerak...

#### Inpaktu horiek gutxitzeko, zer estrategiari jarraitu behar zaio?

- Bilera-, prestakuntza- eta bilkura-zentroetara ahalik eta joan-etorri *gutxienean egitea*.
- Berotegi-efektuko gasen eta beste gas kutsatzaile batzuen *isurpenak gutxitzea*, joan-etorriak egiteko garraio bide ez hain kutsatzaileak erabiliz.
- Ekitaldia izango den lekutik ahalik eta gertuena dagoen *ostatua hautatzea*, eta ingurumen-jardunbide onak aplikatzea.
- Ingurumen-jardunbide onak aplikatzea, eta bidaia-zerbitzua kudeatzeko irizpideak formatu elektronikoan egitea (posta elektroniko bidez).
- Enpresak eta langileak joan-etorriek klima-aldaketarako izaten dituzten inpaktuei buruz *kontzientziaztea*, eta ohitura-aldaketa sustatzea.

#### INGURUMEN ZIURTAGIRIAK, zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- **Informazio-etiketak:** 1999/94/EE Europako Direktibak agintzen duenez, salgai dauden ibilgailu berri guztiek ibilgailuaren kontsumoari eta kilometroko sortzen duten CO<sub>2</sub>-emisioei buruzko informazio-etiketa eduki behar dute, nahitaez. Horren ondorioz, bi osagai dituen etiketatze-sistema ezarri da:

## Zenbait kontzeptu nagusi

### Informazio-etiketak

**Nahitaezko etiketa.** Modelo bakoitzak — salmentokian ondo ikusteko moduan dela— hauek adierazi behar ditu: kontsumo-datuak eta CO<sub>2</sub>-emisioenak. Fabrikatzaileak eman behar ditu datu horiek.

**Borondatezko etiketa.** Konparaziozko balorazio-sistema haztatua da. Energia eraginkortasunaren arabera sailkatzen ditu ibilgailu guztiak, A-tik (eraginkorrena) G-ra (eraginkortasun gutxiena duena) bitarteko eskala batean.

En todos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismos nuevos.

Marca/modelo:  
Tipo de carburante:

CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)	
Tipo de conducción	l/100 km
En ciudad	
En carretera	
Media ponderada	

EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO<sub>2</sub>  
(SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)

g/km

El consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO<sub>2</sub> es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.



Energia-sailkapenari buruzko etiketa nahitaezkoa ez denez, eta fabrikatzaile edo kontzesionario askok ez dutenez, urtero merkatuan jarri diren ibilgailu berri guztiei buruz IDAEk argitaratzen duen gida kontsultatu daiteke <http://coches.idae.es/helbidean>. (zehaztasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: laburpen-fitxa: IBILGAILUAK).

- **Ostatuetarako:** Geroz eta hotel eta establezimendu gehiagok dituzte ezarrita eta ziurtatuta Ingurumen Kudeaketarako Sistemak (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...) Horrenbestez, horiek dituzten establezimenduei eman behar zaie lehenetasuna.



## KONTRATAZIOZ HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Bidaiek kudeatzeko zerbitzua kontratazeko prozesuan, erosle eta kontsumitzaile gisara, erabaki eta eragin dezakegun zenbait une daude. Zer unetan? Nola izan iraukorko?

## ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

### 1. Urratsa. Beharrak

Oro har, ez da erraza izaten langileek zenbat joan-etorri egin beharko dituzten aurreikustea; izan ere, edozein unetan sor daitezke konpromisoak eta jardunaldi zein ekitaldi interesgarriak. Baina zerbitzua kontratatu aurretik honetan pentsatu behar dugu:

#### **Beharrezkoak dira programatutako joan-etorriak? Badago beste aukerarik?**

Lehendabizi, ekitaldi, jardunaldi edo jarduera zehatz horretara joatea guztiz beharrezkoa den pentsatu behar da. Batzuetan hala izango da; beste batzuetan, aldiz, hara joan ordez beste aukera batzuk izan ditzakegu:

- Bideokonferentzia (horrek esan nahi du beharrezko instalazio eta sistemak eduki behar dituztela hizketakide guztiek).
- Dena delako ekitaldia linean eta denbora errealean ematea.
- Lotutako dokumentazioa (programak, sortzen den dokumentazioa, hizlarien aurkezpenak...) eta informazio-trukeak Internet/webgune bidez eta posta elektronikoz egitea.

Era berean, bata bestetik gertu dauden lekuetan egun berean zenbait bilera eta bisita koordinatzeak bidaia-kopurua gutxitzen laguntzen du.

#### **Nola antolatu topaketak, joan-etorrien inpaktuak gutxitzeko?**

- Irizpide orokor gisara, ekitaldiren bat antolatzeko, ekitaldira joan behar dutenen gehienek jatorritik ahalik eta hurbilena ipintzen saiatu ekitaldi-lekua.
- Ahal bada, garraio publikoa kontratatu, bertaratu behar dutenentzat.
- Ezin bada, garraio publikoaren erabilera sustatu behar da. Horretarako, besteak beste, bertaratu behar dutenentzako garraio publikoko ordutegiaren arabera planifikatzen saiatu ekitaldia.

Ekitaldiak antolatzean kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo EKITALDIAK ANTOLATZEA fitxara.

## ZER ETA NOLA KONTRATATU?

### 2. Urratsa. Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa

Urtean izaten diren joan-etorrien kopuruagatik bidaiak kudeatzeko zerbitzua kontratatu behar badugu, enpresak zerbitzua zer nolako ingurumen-irizpideekin eman behar duen zehaztu behar dugu kontratuan<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Zeregin hori geure langileek egin behar badute, barne-prozedurak garatu beharko dira, arduradunek beren zereginetan ingurumen-irizpide horiek aplikatu dituztenak.

## 2. Urratsa. Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa

### Garraiorako ingurumen-irizpideak: bidaiak erreserbatzea

Bidaia bat antolatzeko eskatzen denean, zer aukera dauden aztertu, eta aukerarik onenak zein diren adierazi behar du enpresak. Horretaz gain, hiru ordu baino gutxiago irauten duten hegazkin bidezko joan-etorrietarako, trenez bidaiatzeko aukera aztertu eta horren berri ere eman behar du. Hau jaso behar du aukera bakoitzari buruz aurkeztu behar duen dokumentazioak:

- Garraiobidea (hegazkina, trena, autobusa...), eta guztizko prezioa.
- Ibilbide bakoitza egiteko behar den denbora (hegazkinari dagokionez, hara igo aurreko denbora eta aireportutik helmuga-hirira joateko behar den gutxi gorabeherako denbora barne) eta zenbat garraiobide erabili diren.
- Joan-etorriak sortutako CO<sub>2</sub>-isurpenak. Hori kalkulatzeko, erreferentzia-balio hauek erabili behar dira:

Garraiobidea	CO <sub>2</sub> -aren emisio-faktorea
Gasolina- <b>autoa</b>	0,197 kg CO <sub>2</sub> , km eta ibilgailuko
Gasolio- <b>autoa</b>	0,190 kg CO <sub>2</sub> , km eta ibilgailuko
<b>Autobusa</b>	0,065 kg CO <sub>2</sub> , km eta bidaiariko
<b>Trena</b>	0,050 kg CO <sub>2</sub> , km eta bidaiariko
<b>Hegazkina</b>	
- ibilbide laburrak (300 km baino gutxiagokoak)	0,510 kg CO <sub>2</sub> , km eta bidaiariko
- erdibideko ibilbideak (300-750 km bitartekoak)	0,400 kg CO <sub>2</sub> , km eta bidaiariko
- ibilbide luzeak (750 km baino gehiagokoak)	0,320 kg CO <sub>2</sub> , km eta bidaiariko

### Garraiorako ingurumen-irizpideak: auto-alkairua

- Autoa alokatu behar denerako, eskura dauden beste aukeren berri ere eman behar du enpresak (gutxienez, beste bi aukera). Aurkeztu beharreko dokumentazioan, informazio honek agertu behar du, aukera bakoitzeko:

Marka, modeloa eta matrikula	CO <sub>2</sub> -isurpenak (g/km)	Energia-eraginkortasuna	EURO estandarra	Prezioa eta baldintzak

Aukera guztiek 160 g/km baino txikiagoak izan behar dituzte CO<sub>2</sub>-isurpenak, eta, energia-eraginkortasunari dagokionez, gutxienez, B sailkapena (edo 140 g/km eta A sailkapena, zorrotzagoak izan nahi badugu). Fabrikatzaileak edo banatzaileak eman behar digu ibilgailu-kategoriaren eta isurtzen dituen emisioen berri, edo, bestela webgune honetan kontsultatu: <http://www.idae.es/coches/>

## 2. Urratsa. Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa

- Horretaz gain, alderdi hauek ere hartu behar dira aintzat: EURO 5 estandarra betetzea, edo kontsumoa gutxitzeko sistemak izatea (esate baterako, martxa-aldaketen adierazleak edo gurpiletako presioaren adierazleak).

### Garraiorako ingurumen-irizpideak: autobus-alkairua

- Autobusa alokatu behar bada, bioerregaiekin edo gas likidotuekin funtzionatzea edo hibridoak edo elektrikoak izatea eska daiteke.
- Ibilgailuak EURO 5 edo geroko estandarren gas kutsatzaileen emisio-mailak betetzen dituela bermatu behar du enpresak.
- Horretaz gain, informazio hau ere eman behar du enpresak:

Marka, modeloa eta matrikula	EURO estandarra	Zarata-isurpenak, dB(A)	Prezioa eta baldintzak

- Autobusa gidaria duela alokatu behar bada, gidariak gidatze eraginkorrari buruzko trebakuntza izatea balioetsi egin behar da.

### Ostatu-emateetan kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

Ostatua erreserbatzea eskatu bada, aukera hauen berri eman behar du enpresak:

- Ohedun trenaren berri, ordutegiagatik hegazkin- edo ohiko tren-konexiorik ez badago ekitaldia izan den egun berean, eta ostatua kontratatzea beharrezkoa bada (jardueraren aurretik edo ondoren).
- Iritsi den lekutik edo bilera, biltzar edo ekitaldia izango den lekutik gertuen dagoen ostatuaren berri, oinezko joan-etorriak ugaritu eta garraio publikoko zerbitzurako konexio ona egon dadin.
- Ostatuak ingurumen-kudeaketako sistemaren bat izatea (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan), ingurumen-hobekuntzako neurriak aplikatzen dituela bermatzeko.

Eta dauden aukeretarako, honi buruzko informazioa eman behar da: prezioari buruzkoa (gaua pasatzeagatik eta gosaltzeagatik); iritsi den lekutik ekitaldia izango den lekura garraio publikoz eta/edo oinez joaterik badagoen, eta ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistemarik baduen.

### Bidaiak kudeatzeko zerbitzuari aplikatu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Behar-beharrezkoa denean izan ezik, gainerako izapide guztiak formatu elektronikoan egitea eskatu behar da, paper gutxiago kontsumitu eta posta gutxiago bidaltzeko.
- Dokumentuak paperean aurkeztu behar badira, % 100 paper birziklatua erabili behar da (kupoi-txartelak izan ezik).

## 2. Urratsa. Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa

- Segimendua egiteko, urtero txostena aurkezteko eskatu behar zaio bidaiak kudeatzen dituen enpresari. Txostenean, hau jaso behar da:
  - ⇒ urtean guztira egindako joan-etorriak.
  - ⇒ Garraiobide bakoitza zenbat erabili den (ehunekoa), bai oro har, bai jomugako.
  - ⇒ Garraiobide bakoitzean egindako distantzia eta bakoitzari lotutako CO<sub>2</sub>-isurpenak, garraiobide bakoitzeko CO<sub>2</sub>-isurpenen faktore-taularen arabera.
- Era beran, hondakinei edo beste alderdi batzuei dagokienez, ingurumen-jardunbide onak hartzeko eskatu behar zaio enpresa hornitzaileari zerbitzua ematen duen bitartean.

Irizpide horien guztien artetik, bete behar direla edo erraz bete daitezkeela uste dugunak eskatu edo balioetsi behar ditugu kontratazioan.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi badu, lhobek argitaratutako Kontrataziorako eta Erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun maila daude: oinarritzkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.



## INFORMAZIO GEHIAGO...

### Lotura interesgarriak

- [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.